

## **Bezeroekiko harremanak**

Hainbat harreman mota konbinatzea ikusi dugu komenigarrien. Horien artean: zerbitzu automatizatua; horretarako web-gune bat sortuko dugu gure produktua ahalik eta jende gehienengana helarazteko helburuarekin. Gainera, web-gunearen bitartez bezeroei euren zalantzak argitzeko aukera eman nahi diegu, denda fisikora joan behar izanik gabe. Azkeneko honi zerbitzu pertsonalizatu deritzo.

Bi harreman hauek konbinatuz taldeko partaideek uste dugu hartu dugun erabakirik onena izan dela. Izan ere, ez zaigu iruditzen denda batean inbertitzea egokia izango litzatekeenik, hasi berriak baikara mundu honetan eta gure iritziz momentuz edalontziak eta tapak soilik saltzeko hobe da internet bidez saltzea edota herriko tabernetan salgai jartzea

Horretaz gain, gaur egun geroz eta gazte gehiago internet bidez eroatera ohitu dira eta ez denda fisikotan. Beraz, gure helburua bezero gazteengana iristea denez, webgune bat sortzea egokiagoa dela uste dugu.

Marketinaz baliatuko gara gure promozioa egiteko eta horrela jende gehiagorengana iristeko. Horretarako, aldizkariekin akordio batera iritsiko gara, gure produktua biztaleengana zabaltzeko. Aldizkari fisiko zein internet bidezkoan argitaratuko genuke.

Azkenik, guretzat oso garrantzitsua da fidelizazioa, gure bezeroak berriro etortzeko eskaintza liluragarria eskaintzen baitugu.